

Herritarren hizkuntza-eskubideei eta hizkuntzaren estatusari buruzko araudia

Estatuko arauak

- Espainiako Konstituzioa, 1978ko abenduaren 27koa
(1978-12-29ko BOE, 311 zk.)

3. artikulua.

- 1.- *Gaztelania da Espainiako estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiak dute gaztelania jakiteko eginbeharra eta erabiltzeko eskubidea.*
- 2.- *Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien autonomia-erkidegoetan, beraietako estatutuekin bat etorriz.*
- 3.- *Espainiako hizkuntza-moten aberastasuna kultur ondarea da, eta ondare horrek begirune eta babes berezia izango du.*

- Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna berretsia
(2001-09-15eko BOE, 222 zk.)

Gutunaren 7. eta 8. artikuluetan derrigorrez bete beharreko helburu eta printzipioak azaltzen dira eta arlo publikoan eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen erabilera sustatzeko neurriak aurreikusten dira esparru ezberdinetarako: irakaskuntza, justizia, administrazio agintariak eta zerbitzu publikoak...

- Azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena
(1992-11-27ko BOE; 285zk.)

35. artikulua. *Herritarren eskubideak.*

Herritarrek herri-administrazioekiko harremanetan eskubide hauek dituzte:
d) *Norberaren autonomia-erkidegoko lurraldean ofizialak diren hizkuntzak erabil ditzakete, lege honetan eta gainerako ordenamendu juridikoan ezarritakoaren arabera.*

36. artikulua. *Prozeduretako hizkuntza.*

1. *Estatuko administrazio orokorraren prozedurak gaztelaniaz izapidetuko dira. Dena den, interesdunek autonomia-erkidegoan ofiziala den beste hizkuntza ere erabil dezakete, autonomia-erkidego horretan kokatutako estatuko administrazio orokorreko organoetara jotzen dutenean.*

- LEY 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público
(2007-04-13ko BOE, 89 zk.)

Artículo 54. Principios de conducta (de los empleados públicos)

11. Garantizarán la atención al ciudadano en la lengua que lo solicite siempre que sea oficial en el territorio.

(Itzuli gabea)

Euskal Autonomia Erkidegoko arauak

- Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa
(1980-01-12ko EHAA).

6. artikulua

1. Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.

- Euskararen Erabilpena Arautzeko, azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea
(1982-12-16ko EHAA; 160 zk.)

5. artikulua

2.- Euskal Herriko herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie:

a) Administrazioarekin edota Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein erakunde edo entitaterekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea, ahoz nahiz idatziz.

6. artikulua

1. Herritar guztiei aitortzen zaie, Autonomia Erkidegoaren lurraldean, herri administrazioarekiko harremanetan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea, eta beren aukerako hizkuntza ofizialean hartuak izatekoa.

14. artikulua

1. Lege honen 6. artikuluan aitortzen diren eskubideak gauzatzeko, herri aginteek Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan herri-administrazioari atxikitako langileria gero eta euskaldunagotzeko neurriak hartuko dituzte.

- 6/2003 LEGEA abenduaren 22koa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena

(2003-12-30eko EHAA; 254 zk.)

4. artikulua. – Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak.

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen oinarrizko eskubideak honako hauek dira:

f) Bi hizkuntza ofizialak erabiltzea lege honek eta ordenamendu juridikoaren gainerako legeek ezartzen dutenari jarraiki.

II. TITULUA: KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILAILEEN ESKUBIDEAK.

VII. KAPITULUA: KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILAILEEN HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK

Kapitulu honetan kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak aitortzen dira, eta eskubide horiek betetzeko arlo ezberdinen betebeharrak zehaztu:

- erakunde publikoenak

- diruz lagundutako erakundeenak eta interes orokorreko sektoreenak

- salmenta- eta zerbitzu-establezimenduenak

- Euskal Funtzio Publikoari buruzko, uztailaren 6ko, 6/1989 Legea

(1989-07-28ko EHAA; 144 zk.)

97. Atala

1.- Euskera eta gaztelera dira euskal Administrazio Publikoetako hizkuntza ofizialak, eta bi hizkuntzok erabiltzea bermatu beharko dute Administrazio horiek bere barneko zein kanpoko harremanetan.

2.- Hori bermatzeko, hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak ezarriko dira lanpostuetan. Hizkuntza eskakizunak zehaztuko ditu lanpostua betetzeko eta hor lan egiteko beharrezkoak diren euskarazko hizkuntza gaitasun mailak. Euskal Administrazio Publikoek neurriak hartuko dituzte euren langileek behar bezalako hizkuntza gaitasuna lor dezaten.

- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena

(1997-04-17ko EHAA; 72 zk.)

Dekretuan hauek zehazten dira:

- ♦ Administrazio-atalen sailkapena, helburuen eskala eta euskararen erabilera normalizatzeko planak arautzea
- ♦ lanpostuei dagozkien hizkuntz eskakizunak

- ♦ hizkuntza eskakizunen egiaztatzea eta lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuetan baloratzeko modua
 - ♦ baliokidetasunak eta salbuespen arauak
 - ♦ derrigortasun datak zehaztea
- 2/2003 Ebazpena, urtarrilaren 14koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 1998-2002 aldirako Planaren ezarpenaldia luzatzen duen Jaurlaritzaren Kontseiluko Erabakia argitara dadila agintzen duena

(2003-02-05eko EHAA; 24 zk.)

***Lehena.**- 2003ko abenduaren 31 baino lehen onartuko den Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana, hirugarren plangintzaldiari dagokiona (2003-2007) onartzen den arte Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 1998-2002 aldirako Planaren eduki eta printzipioak, denboraz kanpokoak izateagatik euren ondorioak luza ditzaketenak 2002ko abenduaren 31tik aurrera luzatzea.*